

## ZAKU-ERAMATEA

### JOKOAREN OINARRIA

Joko honean zaku bat lepo gainean eta distantzia jakin batean, ahalik eta lasterren eraman behar da.

### MATERIALAREN EZAUGARRIAK

**1.art.-** Zakuak 80 kilo izango ditu (+ - 1 k), artoz, gariz edo antzeko zerbaitez beteak. Emakumezkoen lehiaketetan zakuak 40 kiloko pisua izango du.

**2.art.-** Zakuari bolumena edukiak emango dio, bestelako amarrurik gabe. Heltzeko, zakuari puntak soka baten bidez lotu ahal izango zaizkio.

### ARAUAK

**3.art.-** Ekitaldia 120 metro luze izango da, lerro zuzenean. Antolaketa errazteko, zati ezberdinak izan ditzake: 2 x 60 metro, edo 4 x 30 metro.

**4.art.-** Ekitaldia hasterakoan, zakua hartzeko laguntza erabili ahal izango da.

**5.art.-** Errelebutako lasterketaren kasuan, zakua lerrotik kanpo pasatuko diote elkarri.

**6.art.-** Lasterketan zehar zakua eroriz gero:

- Banakako lasterketa: kirolariak berak altxatuko du zakua laguntzarik gabe.
- Errelebutako lasterketa: errelebuko lagunek lagundu ahal izango diote.

**7.art.-** Ekitaldia bukatzeko, bai kirolariak bai zakuak pasatu beharko dute helmuga.

**8.art.-** Zakua lepo gainean hautsiz gero, talde horri ekitaldia berriz hasteko aukera emango zaio. Zakua erori delako hausten bada, kanporatua geldituko da.

**9.art.-** Kaleak markatuak egongo dira. Kirolari bat beste baten kalera pasatzen bada, eta aurkariak oreka galtzea eragiten badu horrekin, kalez aldatu dena kanporatua izango da. Kaleraturiko taldeak beste ekitaldi batean hartu ahal izango du parte.